



Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Ingenieria Sin Fronteras



Eraldaketa ekosozialerako GrAL/MALen ebaluazioaren diseinua

Eragileen parte-hartzea, funtsezko uneak eta
segimendua eta ebaluazioa egiteko errubrika

Eraldaketa ekosozialerako GrAL/MALen ebaluazioaren diseinua:

Eragileen parte-hartzea, funtsezko uneak eta ikerlanen segimendua egiteko errubrika

IDAZLE-TALDEA:

Pepe Ruiz Osoro
Joseba Sainz de Murieta Mangado
Unai Villena Camarero
Arrate Zelaia Eizaguirre

ARGITARATZAILEA:

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)
info.bilbao@euskadi.isf.es
www.euskadi.isf.es
CIF/IFK: G-48699045

FINANTZATZAILEA:



ITZULTZAILEA:

Garazi Arteagoitia

MAKETATZAILEA:

Binari Comunicación

INPRIMATZAILEA:

Erreka Multimedia, S. Coop.

Bilbo, 2021



Creative Commons 4.0 lizentzia

Agiri honek Creative Commons lizentzia dauka. Hortaz, lan hau aske kopiatu, hedatu eta argitara daiteke, egileak aipatzen badira eta salerosketarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu edo eraldatu, ezta lan honetan oinarritutako beste lanik sortu ere.

Lizentziaren eduki osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
1.1. Gure ikuspegia	4
1.2. GrAL/MALen laguntza eta ebaluaziorako gida honi buruz	5
2. Prozesuaren garrantzia eta funtsezko uneak	8
2.1. Hasierako hartu-emana	8
2.1.1. Elkar ezagutzen	9
2.1.2. Dokumentu akademikoa	9
2.1.3. Gaitasunak	10
2.1.4. Prozesua	10
2.2. Prozesuaren diseinu kolektiboa	12
2.3. Tarteko bilerak	13
2.4. Ixteko uneak	13
3. Ebaluazio-errubrika	15
3.1. Errubrika jorratu aurretik aintzat izan beharreko zenbait kontu	15
3.2. Ikaskuntzaren emaitzak	16
3.2.1. Parte-hartzea eta lan kolektiboa	16
3.2.2. omunikazioa eta eleaniztasuna	18
3.2.3. Etika eta gizarte-konpromisoa	23
3.2.4. Pentsamendu kritikoa	25
4. Amaierako zenbait hausnarketa	30
Bibliografia	32

1. Sarrera

1.1. Gure ikuspegia

Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) GGKEa eta unibertsitate-elkartea da. Zientzia eta teknologia hegemonikoen inguruko hausnarketa kritikoaren aldeko apustua egiten dugu, eta, aldi berean, egon litezkeen bizimodu guztiak ardatz dituzten alternatibak sustatzen ditugu, merkatuaren logiken mendeko eredu baztertzailen orde. Unibertsitatea abiapuntu izanik, gure jarduera gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren eta nazioarteko lankidetzaren esparruan sustatzen dugu, diziplina anitzeko talde baten lanaren, esfortzuaren eta ilusioaren bidez.

Bide horretan, tresna ugari jarri ditugu abian, gure lana betetzeko. Erakundea lehen urratsak ematen hasi zenetik, proiektu eta titulazio-lanak bultzatu ditugu, baliabide akademikoak gizarte-eraldaketaren zerbitzura jar litezkeen espazioak izan zitezkeela sinetsita. Aurrena, Karrera Amaierako Proiektuak bideratu genituen, eta, ondoren, Gradu Amaierako Lanen eta Master Amaierako Lanak (GrAL/MAL). ISF-MGIk 20 urte baino gehiagoko esperientzia du mota horretako ikerketa-proiektuak diseinatzen, laguntzen eta egiten.

Ikasketa-planek GrAL/MALei¹ buruz emandako definizioaz haraindi, ISF-MGIk uste du ikasteko tresna baliotsua dira, eta baita zeharkako gaitasun eta trebetasun batzuen gainean lan egiteko eta sakontzeko aukera bat ere, nahiz eta egia den, unibertsitateetako ikasketa-plan eta plan estrategiko gehienetan agertu arren, gaitasun zehatz operatiboagoen mesedean ezkutuan edo baztertuta geratu ohi direla.

Gure aurreko argitalpenean adierazi bezala (“Gizarte-eraldaketarako bidea: Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak eraldaketarako tresna gisa”), GrAL/MALak gizarte-eraldaketaren zerbitzura dagoen tresna bilaka litezke. Eraldaketa-prozesuak dira, eta arlo sozialetik pertsonalera doaz; hala, dualtasun bereziak ez direla erakusten dute, elkarri konektatuta dauden eta elkar elikatzen duten eremuak baizik (Pérez-Pons et al, 2019).

Lan-koaderno hartan jasotako zenbait indargune gogora ekarrita, GrAL/MALen ahalmenaren zati bat da aukera ematen dutela, ikerketen bidez, unibertsitatea eta gizarte-eragileak uztartzeko, eta, hala, gizarte-eraldaketaren zerbitzura dauden baterako helburuak bateratzeko. Era berean, GrAL/MALak esperimentazio metodologiko emantzipatzaileko guneak izan daitezke, eta testuinguru lokalizatueta

¹ Unibertsitate Ikasketa Ofizialen Antolaketa ezartzen duen Errege Dekretuak (urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua) ezartzen du gradu-ikasketa ofizial guztiak Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu ondoren amaituko direla, eta gradu amaierako lan horrek ikasketa-planaren barruan egon behar duela. Halaber, ikasketa-planaren amaieran egin beharko da, eta tituluari lotutako gaitasunak ebaluatzerako bideratuko da (zeharkako gaitasunak eta gaitasun bereziak barne hartuta).

kokatuta, diziplinarteko ikusmoldeez elikatu, inolako zorrotasun akademikorik galdu gabe. Eredu pertsonalean, ikasleak beren hezkuntza-prozesuaren subjektu aktibo bilakatzen dira, eta, horri esker, beren autonomia sustatzen da, testuinguru desberdinetan diziplina anitzekin lan egiten ikasten dute, eraldaketa ekosozialera bideratutako trebetasun profesionalak berenganatzen dituzte eta arlo akademi-koaz haraindi doan inpaktua lortzen dute.

Ezaugarri eraldatzaile horiekin batera, GrAL/MALek emantzipazioaren eremuan duten ahalmena oztokatzen duten mugak ere badituzte. Lan-koadernoan azaldu genuen bezala, badira lan mota horiek oztopa dezaketen zenbait elementu, hala nola ebaluazio-mekanismoak eta epaimahaien eginkizuna. Izan ere, batzuetan ez da ikerketa berezi horiek sustatzeak ekarri duen ahalegin gehigarria balioesten, «batez ere, haratago joan eta egoera soziopolitikoari edo testuinguruari buruz iker- tzeke helburuz, prestakuntza espezifikora bideratutako ikerketa zorrotzetan zen- tratu ez diren karrera teknikoetako GrAL/MALen kasuan» (Pérez-Pons et al, 2019).

Epaimahaiak eta ebaluazio-mekanismoak GrAL/MALetan izaten ari diren rolari buruzko diagnostiko hori ikusita, ISF-MGIk unibertsitate- eta gizarte-eragile uga- rik adierazitako behar hori aintzat hartu nahi izan du, eta, hortaz, argitalpen hau aurkeztu du, aipatutako ikerketa horietan laguntza eta orientazioa emateko hel- buruz. Dokumentu honen bidez, gizarte-eraldaketaren zerbitzura dauden ikerke- ten berezitasunak aurreikusten dituen ebaluazio-errubrika eskaintzeaz gainera, errubrika hori ikerketa bakoitzak duen ahalmen eraldatzailea aprobetxatzeko jaso behar dituen elementu eta faseak kokatzeko elkarrizketa kolektibo baterako au- kera bat izatea dugu helburu.

1.2. GrAL/MALen laguntza eta ebaluaziorako gida honi buruz

Dokumentu hau ISF-MGIren diziplina anitzeko talde baten lanaren emaitza da, eta helburu du eraldaketa ekosozialera bideratutako GrAL/MAL teknologikoak identi- fikatzeko, garatzeko eta, batez ere, ebaluatzeke gidaliburu izatea. Parte hartzeke metodologietatik eta lan kolektibo batetik abiatuta, ezagutzan hausnartu eta erai- ki dugu, eraldaketa ekosozialerako GrAL/MAL askotan parte hartu duten eta/edo karrera zientifiko-teknikoen esparruan sustatutako ikerketa horietako gehienen ebaluazio- eta segimendu-mekanismoetako gabezien inguruko hausnarketa kriti- koa egin duten eragileekin batera.

Aurreko atalean esan dugun bezala, GrAL/MALen ahalmen ugariak aktibatzeke, beharrezkoa izango da horrelako prozesuei laguntzeke bide emango duten eta ikerketa horien fase bakoitza nola eraman jakiteke orientazioa emango diguten tresnak izatea. Hori horrela, gure ustez **argitalpen honetan aurkeztutako eba- luazio-prozesua eta errubrika** gidatzat balia daitezke, ikerketa horien eraldaketa ekosozial eta indibiduala sendotzen duten zenbait elementuri arreta emateke.

Badakigu GrAL/MAL bat egitean askotariko eragileak eta ikerketa motak aurki dai- tzekeela: botere-rol eta -posizioak, zenbait ezagutza-eremutatik etor daitezkeen

subjektuak, interes heterogeneoak dituzten taldeak, etab. Gure asmoa ez da, inolaz ere, errubrika hori errezeta unibertsaltzat hartzea, ezta GrAL/MAL guztiei alde aurreko hausnarketarik gabe aplikatzea ere. Are gehiago, dokumentu honetan maximoen errubrika bat aurkezten dugu, ikerketa bakoitzaren berezko behar eta berezitasunetara egokitu daitekeen elkarrizketarako aukera bat, ikerketa-prozesu horiek autonomiatik eta pentsamendu kritikotik abiatuta eraikitzeke dei bat. Uste dugu errubrika hori eta hari laguntzeko prozesua ikasteko tresnatzat hartu behar direla, eta iparrorraztat, GrAL/MAL identifikatzeko, gauzatzeko eta haren segimendua eta ebaluazioa egiteko prozesuak eta haren helburuak gidatzen laguntzeko. Aldi berean, errubrika hori tresna bizitzat ulertzen dugu, eta hura eraldaketa ekosozialerako GrAL/MALen laguntzeko jasotzen jarraituko dugun ikaskuntza, iruzkin eta gomendioez elikatuko da.

Gida honetan deskribatutako prozesuaren bidez, alde batera utzi nahi da azken produktua GrAL/MAL bat ebaluatzeko bide bakartzat kalifikatzeko joera zabala. Gure ustez, ebaluazio-prozesu baten benetako potentziala honako honetan datza: ebaluazioan inplikaturako eragile guztiei (eta ez soilik ikasleari eta/edo tutoreari) irakatsi eta ikasteko prozesuko edozein elementu egokitzeko behar den feedbacka emateko aukeran. Hala, ebaluazio jarraitua eta prestakuntza-ebaluazioa egitea proposatzen dugu, eta, hartan, azken ebaluazioko elementuak (epaimahai baten aurrean defendatzera murrizten direnak) beste elementu guztien artean kontuan hartzea, eta ez prozesu osoa egituratzen duen ardatz nagusitzat.

Ebaluazioa ikerketaren azken une horietara mugatu ez dadin, dokumentu honetan hainbat mugarri zehazten dira, prozesuan zehar markatutako uneak, egindako lana berrikusteko eta etorkizuneko lana diseinatzeko eta egokitzeko. GrAL/MALi lotutako gaitasunak eskuratu direla ziurtatzen duten eragile askoren koordinazioarekin eta mugarriak ezartzearekin batera, zenbait azterlanek «errubrikak segimendu- eta ebaluazio-tresnatzat erabiltzearen» erabilgarritasuna azpimarratzen dute (Hernández-Leo et al, 2013). Gure kasuan, helburu dugu errubrikak aukeratzat balio izatea, ikerketak eraldaketa ekosozialerako balio izateko helburua gal ez dezan.

Hori horrela, gure ustez trantsizio ekosozialera bideratutako GrAL/MAL orok behar kolektibo batzuei erantzuten die, eta, horiek behar bezala lortzeko, landu eta, ondoren, ebaluatu beharreko alderdi batzuk daude. Alderdi horiek ikaskuntzaren emaitza bilakatu ditugu, eta ebaluazio-errubrikaren itxura eman diegu. Lau atal handitan banatu ditugu:

- Parte-hartzea eta lan kolektiboa
- Komunikazioa eta eleaniztasuna
- Etika eta gizarte-konpromisoa
- Pentsamendu kritikoa

Hala, gure ustez, errubrika hori prozesuaren hasieran adostu behar da, GrAL/MALen parte hartzen duten eragileekin, eta, ondoren, erabili, lehenik GrAL/MAL garatzeko gidatzat eta, bigarrenik, ebaluazio-tresnatzat (bitartekoa, koebaluazioa eta azken ebaluazioa bera). Prozesuaren amaieran zure ikerketaren muga, akats eta

ahulezia guztiak agerian uzten dituen epaitzat jarduten den ebaluazio-errubriken ordez, eduki publikoa duen errubrika baten alde egiten dugu, alderdien artean adostutakoa eta ikerketa-proiektuaren bidea diseinatzeko gidatzat balioko duena.

GrAL/MAL bateko prozesuak kolektibizatzeko erronkari aurre egiteko, elkarrizketa eta eraikuntza kolektiborako dei horri aurre egin behar zaio. Gure ustez, GrAL/MALak inguratzen dituen “nahitaezko indibidualtasuna” baino askoz ere aberasgarriagoa da, eta, eraldaketa-proiektuen kasuan, ezinbestekoa taldean lan egitea. Espero dugu argitalpen honek, eraikuntza kolektibotik eta elkarri lagunduz, inertiak alde batera uzteko eta ikertzeko ditugun moduak birplanteatzeko dei hori islatzea.

2. Prozesuaren garrantzia eta funtsezko uneak

Ezin dugu ahaztu GrAL/MAL bat, helburu, emaitza eta ondorioez eta alderdi formalez eta edukiez gainera, funtsezko izaera pedagogikoa duela, eta hura egiten duen ikaslearentzat, ikaskuntza-tresna bat dela.

Ildo horretatik, gure ustez zenbait gai landu behar dira une zehatzetan GrAL/MAL egiten den bitartean, eta horiek funtsezkoak dira ikaskuntza-prozesu hori aberas-teko eta lana ondo egiteko.



1. irudia: Ebaluazioa diseinatzeko prozesuaren eskema. Iturria: geuk egina

Une horiek denboran kronologikoki antolatuta daude, eta ez dute hierarkia-erlaziorik: guztiak dira maila berean garrantzitsuak, eta proiektuen izaeraren eta tipologiaren arabera egokitu ahalko dira. Hurrengo epigrafeetan, horiek guztiak ikusiko ditugu, deskribatu egingo ditugu eta prozesua gidatzen lagun dezaketen galdera batzuk planteatuko ditugu.

2.1. Hasierako hartu-emana

Lehen une hau, oro har, tutorearen eta buruan GrAL/MALekin hastea duen ikaslearen artean izaten da. Hasierako harremanak izateko elkarrizketa horrek dimensio ugari hartzen ditu, eta aukera bat da ikasleak informazio asko jaso eta prozesuaren ezaugarriak ulertu ahal izateko.

Gure ustez, bereziki garrantzitsua da ebaluatuko diren gaitasunei buruz aldez aurretik hitz egitea. Izan ere, hori adostean, ikasleari parte hartzeko aukera ematen zaio, eta lortu behar duena ulertzen du. Une horri dagozkion asmoak ikusita, zaila da xehetasun guztiak bilera bakar batean ebaztea, eta garrantzitsua izango da baikoitzak ideien proposamenak eramatea, ulertzea eta erabakiak lasaitasunez hartu ahal izatea, eta, hala, botere-harremanak hausten saiatzea. Beharrezkoa balitz, elkarrizketari berriro heldu beharko litzaioke, informazio guztia finkatu ondoren.

Proiektuaren hasierako definizio-maila eta definizio hori nork egin duen gora-behera (unibertsitatea, gizarte-eragileak edo beste eragileren bat), garrantzitsua da konfiantzazko giro bat sortzea eta, hala, alderdi guztiak eroso sentitzea, beren asmo eta beharrak adierazteko. Hori gertatu ahal izateko, jarraian, elkarriketan egin daitezkeen galderak adieraziko dizkizuegu, gida edo adibidetzat erabil daitezkeenak.

2.1.1. Elkar ezagutzen

Guztiontzako ingurune segurua sortzeko, garrantzitsua da elkar ezagutzea, eta GrAL/MALen inguruan sortzen diren behar eta asmoak zintzotasunez adieraztea. Gainera, gure iritziz, garrantzitsua da ebaluatuko diren zeharkako gaitasunei buruz hitz egitea, besteak beste: autonomia, erabakiak hartzeko gaitasuna, ekimena, proaktibitatea, enpatia, arazoak konpontzea, asertibitatea, sormena...

Jarraian, helburu horiek lortzeko batzuk jaso ditugu, gida edo adibidetzat. Garrantzitsua da adieraztea helburua bi noranzkoko elkarriketa bat eraikitzea dela, eta ez galdeketa bat egitea.

- Zergatik erabaki du GrAL/MAL hori eraldaketa ekosozialaren ikuspuntutik egitea/tutorizatzea?
- Zer asmo du?
- Zein izan beharko luke GrAL/MAL horren tutorearen/zuzendariaren eginkizunak?
- Zer espero du lortzea prozesuan?
- Zein dira epeak, eskuragarritasuna, muga-eguna, etab.?
- Ba al du gizarte-mugimendu, GGKE edo antzekoen inguruko prestakuntzarik edo esperientziarik?
- ...

2.1.2. Dokumentu akademikoa

GrAL/MAL izan daitekeenaren ohar orokorrak eman edo jarraitu beharreko graduaren araudi espezifikoa berrikustez gain, gure ustez garrantzitsua da kontuan hartzea unibertsitatetik kanpoko eragileek eskolak ebaluatuko duen lan akademikoan lekurik izango ez duten eskaera eta beharrak izan ditzaketela. Hori dela eta, oreka eta konpromisoa lortu beharko dira eskakizun akademikoen eta taldearen beharren artean, eta, betiere, guztiei erantzun.

Jarraian, une honetan argi geratu behar diren zenbait alderdiren zerrenda txiki bat dago:

- Zer atal izan behar ditu GrAL/MAL batek?
- Eraldaketa ekosozialeko GrAL/MAL batean mobilizatzen diren gaitasunak, graduari dagozkion gaitasun akademiko hutsez gainerakoak.

- Zer desberdintasun, irtenbide edo ekarpen sor daitezke, GrAL/MALen kasuan bezala, irismen mugatua duen lan batetik?
- Zer oztopo ager daiteke GrAL/MAL mota hau egiteko prozesuan?
- Non aurki daitezke adibideak eta bibliografia eraldaketa psikosozialeko ikuspuntua sartzeko?
- ...

2.1.3. Gaitasunak

Hasierako hartu-emanen sortu diren gai batzuei berriro heltzeko, gure ustez komenigarria da puntu honetan elkarrizketa bat ezartzea, honako gai hauen inguruan: ebaluatu beharreko zeharkako gaitasunak (erabakiak hartzea, ekimena, proaktibitatea, enpatia, arazoak konpontzea, asertibitatea, sormena), nola egingo den haien segimendua eta nola landu daitezkeen.

Jarraian, aurrerago aurkeztutako eta ondoko bilera kolektibo batean inplikaturik dauden gainerako eragileekin adostu beharko den ebaluazio-errubrikarekin lehen hartu-emanak izateko unea da. Ildo horretatik, berezitasun hori eta gizarte-eragileekin batera lan egiten den proiektu batean sor daitezkeen beste batzuk azpimarratu beharko dira, hala nola datuak biltzeko zailtasuna edo komunikazio handiagoa izateko beharra, kontuan hartuta horiek proiektua denboran luzatzea eragin dezaketela.

Jarraian, gida tankerako galdera edo adibide batzuk daude, helburu horiek lortzeko:

- Gaitasunak banan-banan hartuta, ba al dago gure proposamenari aplikagarri ez zaion ikaskuntza-irizpiderik? Ba al dago sartu nahi dugun beste-rik?
- Errubrikan agertzen diren zein ikaskuntza-irizpide dira funtsezkoak ikerketa-proposamen honetan?
- Zer elementuk oztopa dezakete ekingo dugun prozesua?
- Zeharkako gaitasunei dagokienez, nola irudikatzen duzu gaitasun horiek lortzen laguntzeko eta segimendua egiteko prozesua?
- Zer sentazio eragiten ditu elkarlanak? Identifikatzen al da proiektu hau hartan parte hartuko duten eragileekin egin ahal izateko zailtasunik?
- ...

2.1.4 Prozesua

Ordura arte landu dugun informazioaz jabetu behar dugu, bai eta banaka zein kolektiboki hausnartzeko denborak errespetatzeko beharraz ere. Ez da harrizkoa izango, lehen hartu-eman horretatik, hartu-eman segida luzea sortzea.

Puntu honetara iritsita, behin GrAL/MAL ikuspegi horrekin egiteko erabakita eta horrek dakarrena kontuan hartuta, forma eman behar zaie bai lortu beharreko helburu eta emaitzei, bai ebaluazio-prozesuari. Hau da, kolektiboki identifikatu eta definituko diren beharrei erantzungo zaie, proiektuan parte hartzen duten ahots guztiak jasotzeko.

Orokorrean, sinistu ohi da ebaluazioa lana epaimahaiaren aurrean aurkezteko unea besterik ez dela. Alabaina, guk proiektu osoan zehar egin beharreko ebaluazioa proposatzen dugu, non proiektu horretako eragile guztiek diseinuan eta ebaluazioan bertan parte hartuko baitute. Beraz, prozesua adostua izateko, elkarriketarako eta parte hartzeko guneak sortu beharko dira.

Ebaluazio-prozesua zehazteko, hiru dimentsio kontuan hartzea proposatzen dugu: denboraren kudeaketa (zenbatean behin elkartu, ebaluazio-uneen definitzioa), parte-hartzaileak (nor egongo den zehaztutako une horietan) eta ebaluazio-formatua (parekoen artean, autoebaluazioa...). Hain zuzen ere, zehaztutako ebaluazio-uneak nolakoak izango diren eta horietan nor parte hartuko duen finkatu behar da. Garrantzitsua da azpimarratzea une horiek une akademiko hutsak izan daitezkeela ala inplikaturako eragileekin batera egin; hori dela eta, eragileek jarraian azalduko den bilera kolektiboan adostu beharko dira.

Gure esperientziak erakusten digunez, proiektuaren bilakaerak nekez aurreikus daitezkeen gertaerak izan ohi ditu (gorabehera pertsonalak eta bestelakoak). Gure ustez, hori prestakuntzaren zati bat da, eta ez du inolaz ere tarteko bilerak egiteko oztopo izan behar. Beraz, garrantzitsua da bereziki inplikaturako ikaslearekin hitz egitea, gehienetan esperientzia gutxi izan ohi duelako ibilbide luzeko proiektuetan. Horrenbestez, neurri zuzentzaileak aurreikusi beharko lirateke, eta lana egiten ari den pertsonari lagundu proiektuaren norabidea eta erritmoak berregokitzeko beharrezkoak diren aldaketak ezartzen.

Nahiz eta alderdi horiek aurrerago jorratuko ditugun, puntu honetan nabarmendu nahi dugu tarteko ebaluazioak zein amaierako ebaluazioa prestakuntza-elementutzat hartu beharko liratekeela, baita etorkizuneko prozesuak hobetu ahalko duten elementutzat ere.

Jarraian, helburu horiek lortzen laguntzeko zenbait galdera daude, gida edo adibidetzat erabil daitezkeenak:

- Nola ziurtatuko da taldearen eskariak eta beharrak GrAL/MAL baten bidez ebatzi ahal izatea?
- Zer eremutan sendotu beharko dira prozesu hori aurrera eramateko ezagutzak/gaitasunak?
- Nola diseinatuko da taldearen aurrean lortzen doazen aurkikuntzak itzultzeko unea?
- Nola eta noiz zehaztuko dira tarteko atalen entregak?
- ...

2.2. Prozesuaren diseinu kolektiboa

Bilera hori inplikaturako eragile guztien arteko elkarrizketatzat planteatu behar da. Elkarrizketa horretan, behin proiektuaren hasierako ideiarekin aurkezpenak eta ondorengo azalpenak eginda, hausnarketa bat egin behar da, GrAL/MALak hura egiten duen pertsonarentzat dakarren ikaskuntza-prozesuak duen garrantzia argitzeko, eta, era berean, jokoan jarriko diren eta ondoren ebaluatuko diren gaitasunak eta trebetasunak adosteko.

Espazio horretan, beharrak jaso, eta prozesua zehaztu da. Gainera, ikerketa itzultzeko gutxienezko batzuk adostuko dira, eta tarteko mugarrak, jarraitu beharreko metodologia eta ebaluatzeko modua adostuko dira.

Horrek guztiak ebaluazio-errubrika osatu, eta ebaluazio-errubrika bera eta ebaluazio-prozesua egituratuko ditu.

- Zergatik aukeratu da GrAL/MAL hau eraldaketa ekosozialaren ikuspuntutik egitea/ ikuspegi horrekin osatzea?
- Gaia lan honek planteatzen duen ikuspegitik aztertzeak aukera ematen du eraldaketa sozialerako bideak aztertzeke?
- Gaiaren tratamenduak inpaktuak ditu pertsonengan eta naturan? Zer motatakoak? Gure gizartearen arazo ekosozialei erantzuten die?
- Zer asmo dago? Zer espero da lortzea prozesuan?
- Zein dira denborak, epemugak, etab.?
- Non aurki daitezke adibideak eta bibliografia kolektiboaren ikuspegia sartzeko?
- Aurkeztutako gaitasunetatik abiatuta, ba al dago gure proposamenari aplikagarri ez zaion ikaskuntza-irizpiderik? Ba al dago sartu nahi dugun besterik?
- Zeharkako gaitasunak direla eta, nola irudikatzen dugu gaitasun horiek lortzen laguntzeko eta segimendua egiteko prozesua?
- Zer elementuk uste dugu oztopa dezaketela ekingo dugun prozesua?
- Nola sentitzen gara elkarlanarekin? Identifikatzen al dugu proiektu hau hartan parte hartuko duten eragileekin egin ahal izateko zailtasunik?
- Nola ziurta dezakegu taldearen eskariak eta beharrak GrAL/MAL baten bidez ebatzi ahal izatea?
- Zer kontu landuko dira GrAL/MALen eta zein geratuko da kanpo, lanaren irismena zehaztean?
- Zer eremutan sendotu beharko genituzke prozesu hori aurrera eramateko gure ezagutzak/gaitasunak?
- Nola diseinatu ditzakegu taldearen aurrean lortzen goazen aurkikuntzak itzultzeko uneak?

...²

² Taula honetan dauden galdera batzuk *Indagación crítica, diálogo y compromiso social en los trabajos de investigación académicos. Apartes desde una experiencia de construcción colectiva (Del Río eta Celorio, 2019)* laneko "Ficha 3. Estructura básica orientativa de un Trabajo Fin de Grado/Trabajo Fin de Máster" fitxan jasotzen diren hausnarketarako galderetatik hartu dira.

2.3. Tarteko bilerak

Une horiek itzultzearen kontzeptuarekin eta atzeraelikaduraren garrantziarekin bat egiten dute, GrAL/MAL egiten ari den ikasleari eta ikaslearekin batera lan egiten duen kolektiboari benetan lagunduko dion prestakuntza-ebaluazioa lortzeko.

Beste behin ere, ebaluazio-errubrikak iparrorraztat duen ahalmena nabarmendu nahi dugu, lehen bilera kolektibo horretan adostua, bilera horiek egiten diren unean GrAL/MALaren garapen-maila ezagutzeko eta, beharrezkoa izanez gero, norabidea aldatzeko edo autoerregulatzeko. Horrek ikerketa itxietan eta metodologია klasiko eta zurrunen mende daudenetan du eragina, eta ikerketa-galderak berriz formulatzeko eta taldearen beharren eta aurrerapenen arabera haren norabidea aldatzeko aukera aintzat hartzen duten beste metodologia dinamikoago eta parte-hartzaileago batzuen alde egiten du.

Komenigarria izango litzateke bilera horietako bakoitzean, akta gisa, txosten bat idaztea, prozesuaren aurrerapenei buruzko hausnarketaren bat jasoko duena. Txosten horietarako, proiektuaren hasieran adostutako jarraibideak erabili behar-ko lirateke, hala nola parekoen arteko ebaluazioak (ikasle-irakasleak, ikasle-eragileak edo irakasle-eragileak) edo autoebaluazioak. Horrela, segimendua errazagoa izango da, eta gabeziak identifikatu ahalko dira proposatutako helburuen betetze-maila ikustean.

Batzuetan, zenbait gertakarik galarazi egiten dute alderdietakoren batek ikerketan aurreikusitakoaren arabera aurrera egitea (prozesuari buruzko 2.1.4 atalean aipatutako egoerak). Ohikoa da egoera hori tarteko bilerarik ez deitzeko arrazoi nahikotzat jotzea («zertarako bilera egin, aurrera egiterik izan ez badut»). Gure ikuspuntutik, garrantzitsua da pentsatzeari uztea tarteko bilerak aurrerapenak jakinarazteko baino ez direla, aurkitutako oztopoei buruz hitz egiteko eta oztopo horiek saihesteko modu posibleak kolektiboki asmatzeko guneak ere badirelako.

Azkenik, parte hartzen duten eragileen artean egon daitezkeen botere-harremanak kontuan hartuta, garrantzitsua da konfiantza- eta segurtasun-gune egokiak sortzea, ikuspegi guztiak aske adierazteko. Botere gehien duen alderdiaren ardura (oro har, tutorearena) izango da horrelako guneak diseinatzean alderdi horiek kontuan hartzea.

2.4. Ixteko uneak

Aurretiaz botere-harremanei buruz aritu gara, eta aspektu horrek garrantzi berezia du prozesuaren amaieran, ebaluazio-mekanismoak eta -guneak diseinatzeko orduan. Ebaluazio-mekanismoak (autoebaluazioa, koebaluazioa eta ebaluazioa bera) arreta eta fintasun handiz diseinatu eta planifikatu behar dira, haien helburua betetzeko baliagarriak izan daitezen.

Epaimahaiaren aurrean defendatu aurretik, tutoreari txosten bat eskatzen zaio, GrAL/MALaren aurkezpena babesteko. Txosten horrek dokumentua aurkezteko gaitasuna ematen du, eta, ondoren, epaimahaiko gainerako kideei ematen zaie. Nahiz eta txosten horren formatua librea izan eta «gaindituta» soil bat ere idatz daitekeen, gure ustez tutoreak prozesuan zehar berak bakarrik ikusi ahal izan dituen alderdi eta zeharkako gaitasun guztien berri eman behar du.

Gure proposamena da txosten horretan errubrika ere bete dezala (prozesuari buruzko alderdiei buruzkoa baino ez, defentsari buruzko alderdiak egiteke geratuko lirake), eta epaimahaiko gainerako kideei beteta bidaltzea, defentsaren unean erreferentziatzen har dezaten.

Interesgarria izango litzateke, era berean, fase horretan ikasleak autoebaluazioa egitea. Horrek aukera emango luke, iparroraztat erabilitako errubrikaz gain, proiektuaren hasieran erabakitako helburuen lorpen-mailari buruzko prestakuntza-gogoeta jasotzeko. Autoebaluazioak ikasleari ahalbidetzen dio bere ikaskuntza-prozesuari buruzko iritziak ematea, eta prozesu horretan ikaslearen rol aktiboa sendotzeko bitarteko bat da. Gainera, hausnarketa motibatzen du, eta autorregulazioa sustatu.

GrAL/MALa ofizialki entregatu ondoren, bi itxiera-une ofizial nabarmendu daitezke. Lehenengoa, epaimahaiaren aurrean gauzatzen da, defentsa deitu ohi zaio, eta ezinbestekoa da ikasleak titulazioa lortu ahal izateko. Horri dagokiola, gogorarazi nahi genuke defentsak publiko aurrean egin daitezkeela, eta proiektuan parte hartu duten eragileak bertan egon daitezkeela eta iritzia eman dezaketela.

Nabarmendu beharreko bigarren itxiera proiektuan parte hartu duten eragileei azken emaitza emateko unea izango litzateke. Kasu horretan, ikerketa entregatzeko momentua lanean jardun duen taldearen testuingurura egokituta egongo da. Izan ere, entrega taldearen egoeraren eta prestutasunaren araberakoa izango da. Denbora-eskuragarritasuna kontuan izanik, halaber, epaimahaiaren aurreko defentsaren aurretik edo ondoren entrega daiteke.

Aipatutako bi itxiera-une horiez gain, lana ixteko unek prestatzeko prozesua ere garrantzitsua dela nabarmendu nahi dugu, bereziki epaimahai akademikoaren aurreko defentsarena. Komeni da, defentsa hori egin aurretik eta sasoiz, tutorea GrAL/MALa egin duen ikaslearekin biltzea, haren garapena nolakoa izan den eta nola bizi izan duen elkarrekin aztertzeko. Halaber, funtsezkoa da tutoreak defentsan gauzatu beharreko ahazko aurkezpena egiteko aholkuak eta jarraibideak ematea (ikasleari epaimahaiaren ezaugarriei, egiturari, epeei, etab. buruzko azalpenak emateko une egokia ere bada). Ez dezagun ahaztu hori guztia GrAL/MALen bitartez bizitako prestakuntzaren eta ikaskuntzaren zati ere badela.

Gure iritziz, kapitulu honetan proposatzen dugun prestakuntza-ebaluazioa jarraituz gero, amaieran ezustekorik egoteko arriskua gutxitzen da. Prozesuan zehar tarteko mugarrien bidez zenbat eta elkarriketa sakonagoa eta jarraituagoa izan, orduan eta gutxiago egongo da esateko azken bilera horretan.

3. Ebaluazio-errubrika

3.1. Errubrika jorratu aurretik aintzat izan beharreko zenbait kontu

Proposatzen dugun ebaluazio-errubrika azaldu aurretik, gogoeta batzuk azaldu nahiko genituzke, errubrikaren ahalmena, egokigarritasuna eta aldakortasuna aprobetxatzeko.

Sarreran aipatu dugun bezala, ezin da GrAL/MALetan errubrikarik erabili, aurrena hausnarketa sakonik egin gabe. Izan ere, lan horiek tipologia anitzetakoak izan daitezke (espezialitatearen, zentroaren, unibertsitatearen, etab. arabera), eta askotariko gaiak lantzen dituzte. Ondorioz, errubrika lan jakin bakoitzera egokitu behar da, hausnarketa indibidual eta kolektiboa egin ondoren.

Gida hau prestatzen parte hartu duen ISF-MGiko kide gehienak ingeniaritza-arloan aritzen dira, ingeniaritza-eskola baten inguruan lan egiten dute, eta luze daramate eraldaketa ekosozialerako lankidetzaren eta hezkuntzaren gaineko lana eremu teknologikoan jorratzen.

Ezagutza kokatuarekin³ bat etorritz, badakigu gida honek “ingeniaritza” kutsua duela, abiapuntutzat baino ez dela hartu behar, eta, gero, kasuan kasu ebaluatu beharreko GrAL/MALekin zerikusia duten ikasketen kasu zehatzera egokitu beharko dela.

Norberaren eta ikerketaren beraren mugez jabetzea pentsamendu kritikoaren ariketa bat da. Ildo horretatik, uste dugu errubrikak kasu partikular bakoitzera egokitu daitezkeen maximoen proposamentzat hartu beharko lirakeela, eta, beste tresna burokratiko bat gehiago izan beharrean, GrAL/MAL bakoitzean inplikaturako pertsona-taldearentzako beharrezko azterketa- eta hausnarketa-prozesurako lagungarri izan beharko luketela.

Bukatzeko, azken ohar bat egin nahiko genuke, edo, hobeto esanda, nahi bat adierazi: errubrika hau elementu bizia bihurtzea gustatuko litzaiguke, eta pixkanaka fintzen eta osatzen den gauza dinamikoa bilakatzea, kasu eta testuinguru desberdinetan erabiltzearen ondorioz sortzen den eraikuntza kolektiboari esker. Horri dagokiola, eskertuko genuke ekarpenak, iruzkinak edo aholkuak jasotzea, errubrikaren etorkizuneko eguneratzeetan gure lanarekin jarraitu ahal izateko.

3 **Ezagutza kokatua** Donna Haraway-k garatutako jarrera epistemologiko kritiko bat da; aztertze helburuez hitz egitea proposatzen du eta, horretarako, abiapuntua agerian uztea, izan ere, erabilitako metodo mota gorabehera, ezagutza oro dago bere testuinguruari eta sortzen duenaren subjektibotasunari lotuta.

Jarraian, errubrika deskribatuko dugu. Ikusiko duzue, kontuan hartutako alderdi-erakundeentzako aurreikusten dituen ebaluazio-irizpide bakoitzaren arabera zatitu dugu: Parte-hartzea eta lan kolektiboa, Komunikazioa eta eleaniztasuna, Etika eta gizarte-konpromisoa eta Pentsamendu kritikoa. Horietako bakoitzean, sarreratxoak egin dugu, ikaskuntzaren emaitzetarako balorazioak argudiatzen dituen taularen aurretik.

3.2. Ikaskuntzaren emaitzak

3.2.1. Parte-hartzea eta lan kolektiboa

«Adin eta gorputz desberdinak, era askotako memoriak eta istorioak ditugu. Gure ikuspegiak bilbe kolektibo eta komunitario batean sareten doaz, eta bilbe horrek mugitzen ari den errealitatea biribiltzen du eta herri-mugimenduetatik egituratzen da pixkanaka»

Claudia Korol

Nahiz eta GrAL/MALak banakako lanak diren, ISF-MGIk uste du lana identifikatzeko zein burutzeko faseetan ikuspegi parte-hartzailea izateak eta elkarlan eraginkorra gauzatzeko lanaren irismena eta ahalmen eraldatzailea izugarri indartu ditzaketela.

Planteatzen ditugun ikaskuntza-emaitzetan, nahita elkarlanaz hitz egiten dugu, eta ez talde-lanaz. Talde batean, hura osatzen duten pertsonen modu independentean lan egiten dute baterako helburu bat lortzeko, eta lidergoa pertsona batek izan ohi du. Elkarlanean, berriz, hura osatzen duten pertsonen trebetasunak elkarren osagarri dira, eta helburu komunarekin aktiboki konprometitzen dira, lidergo partekatua kudeatuz (Acosta, 2011).

Elkarlana gaitasun bat da, eta honako hauek barne hartzen ditu: talde eraginkor baten eginkizunen eta funtzionamenduaren ezagutza, printzipioak eta kontzeptuak, eginkizunak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren trebetasun eta portaerak eta funtzionamendu eraginkorra sustatzen duten taldeko kide bakoitzaren jarrera egokiak (Cannon-Bowers et al., 1995).

Elkarlanean aritzeak esan nahi du beste pertsona, arlo eta erakunde batzuekin modu aktiboan integratzea eta lankidetzan jardutea, baterako helburuak lortzeko. Zuzentasunari, zintzotasunari, lankidetzari eta ideiak eta informazioa askatasunez partekatzeari lotutako gizarte-balioetan oinarritzen da (Villa eta Poblete, 2007); alderdi horiek guztiak ez dira modu aktiboan sustatzen, ikasketa-planetan proposatutako ikaskuntza-jardueretan.

Planteatzen dugun lehen matrizean, diziplina anitzeko taldeen elkarlanari buruzko alderdi batzuk eta diziplina bakarreko taldeen elkarlanari buruzkoak bereizi nahi

ditugu. Izan ere, nahiz eta, gure ustez, lehen kasua askoz ere aberasgarriagoa izan, ulertzen dugu GrAL/MAL batzuek, haien izaeragatik, ezin direla horrelako taldeetan egin.

Bigarren matrizean, garrantzitsua iruditu zaigu benetan parte-hartzailea eta eraldatzailea den lan batean izan beharko lirartekeen hiru prozesu bereiztea: identifikazioa, segimendua eta emaitzen itzultzea.

Hiru kasuetan, prozesu horiek gauzatzen diren guneen diseinuaren eta zaintzaren garrantzia kontuan hartzen dugu, bai eta eratzen diren taldeen eta horietan adierazten diren iritzien aniztasuna kontuan hartzearen garrantzia ere. Horrez gain, prozesuan parte hartzen duten pertsonen rola eta haien arteko botere-harremanei erantzutearen garrantzia ere aintzat izan behar dira.

Prozesuaren alderdi eta une horiei buruzko azterketa eta hausnarketa egin ondoren, honako aldagai hauek kontuan hartuko dituen ebaluazio-matrizea proposatzen dugu:

- Elkarlanaren balioa eta analisi kritikoa.
- Iritzi-aniztasunari arreta berezia eskainiko dioten identifikazio kolektiboko guneak diseinatzeko eta abian jartzeko beharra.
- Prozesuaren bilakaera balioesteko segimendu kolektiboko guneak diseinatzeko eta abian jartzeko garrantzia.
- Mezuak eta bitartekoak zaintzen dituzten itzultze kolektiboko guneak diseinatu eta abian jartzeko eta horiek taldearen aniztasunera egokitzeko beharra.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Diziplina Anitzeko Elkarlana	Eginiko diziplina anitzeko elkarlanaren balioa nabarmendu du, eta, horretarako, elkarlaneko lanak ekarri dituen inplikazioen analisi kritikoa egin. Berezko ekarpenak eta taldearen ekarpenak nabarmendu ditu.	Eginiko diziplina anitzeko elkarlanaren balioa nabarmendu du. Berezko ekarpenak eta taldearen ekarpenak nabarmendu ditu.	Berezko ekarpenak eta taldearen ekarpenak nabarmendu ditu.	Ez du ez aipatu, ez balioetsi lana taldean egin izana.
Elkarlana (diziplina bera)	Eginiko elkarlanaren balioa nabarmendu du, eta, horretarako, elkarlaneko lanak ekarri dituen inplikazioen analisi kritikoa egin du. Berezko ekarpenak eta taldearen ekarpenak nabarmendu ditu.	Elkarlaneko elkarlanaren balioa nabarmendu du. Berezko ekarpenak eta taldearen ekarpenak nabarmendu ditu.	Berezko ekarpenak eta taldearen ekarpenak nabarmendu ditu.	Ez du ez aipatu, ez balioetsi lana taldean egin izana.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Identifikazio kolektiboa	Identifikazio kolektiboko gune horizontalak diseinatu, egin eta balioetsi ditu, aniztasuna kontuan hartuta, eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eutsi dio.	Identifikazio kolektiboko gune horizontalak sortzen ahalegindu da, eta, horretarako, aniztasuna kontuan hartzeak eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eusteak duen garrantzia balioetsi du.	Identifikazio kolektiboko gune horizontalen garrantzia balioetsi du, eta, horretarako, aniztasuna kontuan hartzeak eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eusteak duen garrantzia ere balioetsi du.	Identifikazioa banaka egin du, identifikazio kolektiboaren balioari inolako erreferentziarik egin gabe.
Tarteko segimendu/ itzultze kolektiboa(k)	Segimendu kolektiboko gune horizontalak diseinatu, egin eta balioetsi ditu, aniztasuna kontuan hartuta, eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eutsi dio.	Segimendu kolektiboko gune horizontalak sortzen ahalegindu da, eta, horretarako, aniztasuna kontuan hartzeak eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eusteak duen garrantzia balioetsi du.	Segimendu kolektiboko gune horizontalen garrantzia balioetsi du, eta, horretarako, aniztasuna kontuan hartzeak eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eusteak duen garrantzia ere balioetsi du.	Ez du segimendu kolektiboko jarduerarik egin edo balioetsi.
Amaierako itzultze kolektiboa	Itzultze kolektiboko gune horizontalak diseinatu, egin eta balioetsi ditu, aniztasuna kontuan hartuta, eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eutsi dio.	Itzultze kolektiboko gune horizontalak sortzeko ahalegina egin du, aniztasuna kontuan hartuta, eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eutsi dio.	Itzultze kolektiboko gune horizontalen garrantzia balioetsi du, eta, horretarako, aniztasuna kontuan hartzeak eta taldeak adierazitako ideia guztiak errespetatzeko jarrerari eusteak duen garrantzia ere balioetsi du.	Ez du segimendu kolektiboko jarduerarik egin edo balioetsi.

3.2.2. Komunikazioa eta eleaniztasuna

“Komunikazioaren arazorik handiena horren sorburu den ilusia da”

George Bernard Shaw

GrAL/MAL bat egiten den bitartean, komunikazioa fase guztietan agertzen den prozesu bat da, eta funtsezko faktorea da, eraldaketa ekosozialerako duen ahalmena aprobetxatzeko (Pérez Pons et al., 2019). Erritmo desberdinetara egokitzea, parte hartzen duten subjektuen ahotsen aniztasuna txerta dadin lortzea eta komunikazio-kanal posibleei erantzutea dira, besteak beste, eragile ugari inplikatzeko dituzten ikerketetan komunikazio-estrategiak diseinatzean aurrez aurre ditugun erronketako batzuk.

Komunikazio-gaitasunak, zentzurik zabalenean, komunikazio-kode desberdinak erabili behar ditu, eta ahozko eta idatzizko hizkuntza eta ez-hitzezkoa eraginkortasunez erabiltzea dakar. Komunikazio eraginkor batek hainbat subjektu jartzen ditu elkarrizketan, eta alderdi kognitibo, sentsorial eta emozionalei erreparatu behar die (Reyzábal, 2016). Praktikan, unibertsitatearen testuinguruan komunikazioaren hiru dimentsio lantzen, garatzen eta ebaluatzen dira nagusiki: komunikazioa zenbait hizkuntzatan, ahozko komunikazioa eta idatzizko komunikazioa (Villa eta Poblete, 2007).

Kontuan izan behar da, UPV/EHuren testuinguru eleaniztunean komunikazioaren gaitasunak ahozko eta idatzizko komunikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan garatzea esan nahi duela, bai eremu zientifikoan, bai profesionalean. Gure aburuz, positiboki balioetsi beharko litzateke hizkuntza gutxitu batean lan egitearen aldeko apustu (euskara, kasu). Izan ere, alde batetik, zailagoa da hizkuntza horretako bibliografia aurkitzea (eta, beraz, lan gehigarria hartu behar da beste hizkuntzetakoa itzultzeko), eta, bestetik, hizkuntza gutxitu baten erreferentzia akademikoei ekarpena egiten die. Erreferentzia bibliografikorik ez izatearen arrazoen artean, Boillosek eta Bereziartuak (2021) egungo sistema akademikoak ezarritako merezimenduen eta argitalpen indexatuen arteko erlazioa identifikatzen dute. Lan bat balioestean, bertan nor aipatzen den eta zenbat aldiz aipatzen den kontuan hartu ohi da, eta joera orokor horrek, hizkuntza txikiak (euskara, kasu) bazterteaz gain, ideien errotazioa ere mugatzen du, eta, gainera, ekarpen garrantzitsuek ezin dute arretarik erakarri, Chu eta Evansek (2021) erakusten duten bezala.

Gainera, oso garrantzitsua da ikaslearekin lanean diharduen kolektiboetara hurbiltzea, haiek erabiltzen dituen kodeez baliatuz, kode horiek hizkuntzazkoak nahiz kulturalak izan, ikerlanean dihardutenenganako errespetuaren erakusgarri baita. Horrenbestez, ikerlanean duen balioa aitortu behar zaio. Guk geuk tokiko hizkuntza erabiltzeko ahalegin hori balioetsi egiten dugu, jarrera horrekin homogeneizazioan erortzea eta lan egin nahi den komunitatearen ikuspegia bazterteza saihesten delako. Gure iritziz, garrantzitsuena da proiektuan lan egiten duten eta proiektuaren helburu diren komunitate horietan jartzea arreta, eta hizkuntza horren arabera aukeratzea.

Idatzizko komunikazioari dagokiola, gaitasun hori menderatzeko, diskurtsoa egituratu eta antolatzeko eta entzuleei egokitzeko gai izateaz aparte, ideiak, informazioa eta sentimenduak idazketaren eta laguntza grafikoen bidez transmititzeko gaitasuna ere eduki behar da. Azalpenak koherentea izan behar du, eta erabilitako hiztegia, berriz, argia. Halaber, esaldiak zuzen eraiki eta puntuazio-zeinuak egokiro erabili behar dira. Orobat, erabilitako baliabideei erreparatu behar zaie, hala nola hizkuntzari eta irudiei, gizartean izaten diren eredu diskriminatzaileak isla ez ditzaten. Azkenik, azaldutakoaren zorrotasuna eta egiazkotasuna balioesten dira, bazterretatik eta bazterretarako ezagutza eta hausnarketa sortzeko konpromisoa kontuan hartuta. Ezagutza hegemonikoaren aurrean, gure ustez premiazkoa da errealitatea ulertzeko beste modu batzuetarako guneak irekitzea.

Ahozko komunikazioari dagokionez, gaitasun hori menderatzeak hitzaren bidez ideiak, ezagutzak eta sentimenduak komunikatzeko gaitasuna esan nahi du, elka-

rrizketa-egoeretan eta talde-jardueretan zein hainbat entzuleren aurrean eginiko jendaurreko aurkezpenetan. Ondorioz, komunikazioak argia eta eraginkorra izan behar du eta diskurtsoaren antolaketa egituratua, entzunaldira egokitu behar da, eta hitzezko hizkuntzak eta gorputz-hizkuntzak elkarren osagarri izan behar dute. Azken batean, benetan komunikatu nahi dena transmititzeko gaitasuna eduki behar da. Proposatzen dugun errubrikan, aurkezpenak balioestean ebaluazio-taldeak alborapenik ez egiteak duen garrantzia azpimarratzen dugu, eta, aldi berean, informazioa gizonezkoen ezaugarrietatik haratago transmititzeko gaitasuna nabarmendu, hala nola irmotasuna, segurtasuna eta tonu gogorra edo sendoa. Komunikazioaren eremuan generoak duen sozializazio-maila desberdina kontuan hartuta, garrantzitsua da jarduna “komunikatzeko trebetasuntzat” jo ohi diren komunikazio-arau maskulinoen arabera neurtzen duten inertiak saihestea, dinamika horrek emakumezko ikasle batzuk desabantaila-egoeran utz ditzakeelako (Bengoetxea, 2014).

Joseba Sainz de Murietaren eta Mari Luz de la Calen aurretiko lanetan oinarrituta (dokumentu hau egin zenean ez zeuden argitaratuta), ISF/MGIk proposatzen duen ebaluazio-matrizeak honako aldagai hauek kontuan hartzen ditu, besteak beste:

- Gurekin lanean jardungo duen kolektiboarengana hurbiltzeko eta haren kultura eta hizkuntza aitortzeko beharra (alderdi horiek kontuan hartu beharko dira komunikazioan).
- Hizkuntzaren eta irudien erabilerari dagokionez, estereotipoak saihestea, eta, horretarako, hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea alderdi guztietan, hau da, gizaratean oro har dagoen aniztasuna erakustea eta alborapenak saihestea.
- Lana argia eta zehatza izatea eta errealtatearen egiazko irudia ematea, eta, horretarako, egiaztatutako informazio-iturrien hautaketa zaindua aurkeztea eta bazterretatik sortzen direnei arreta berezia eskaintzea.
- Ikerketaren emaitzen barne-zabalkundea egiteko orduan, lanean diharduen kolektiboaren/pertsonen berezitasunei erreparatzea, eta, horretarako, haien parte-hartzea eta erabakiak hartzea sustatu eta komunitatearen autonomia onartzea.
- Epaimahaiaren aurrean aurkezteko uneari dagokionez, aurkezpena horretarako prestatutako materialetan oinarrituta egitea, eta, horretarako, ulermena eta laburtzeko gaitasuna erakutsi eta azalpenak adibideekin irudikatzea. Gainera, informazioa modu hurbilean eta eraginkorrean transmititu behar da, eta, horretarako, entzuleetan arreta mantendu. Ondorio argi eta koherenteak aurkeztu behar dira, ikaslearen berezko hausnarketekin batera. Amaitzeko, galderen txandan garrantzitsutzat jotzen da proiektuari buruz egindako galderari buruzko erantzun zehatza ematea.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Kolektiboaren/ parte-hartzaileen hizkuntzaren aitortpena	Elkarlanean diharduen taldearekin haren hizkuntzan komunikatu da.	Ikerketa-tresnetan kolektiboaren/ parte-hartzaileen hizkuntza sartu du	Ikerketan kolektiboaren/ parte-hartzaileen hizkuntza sartzeko beharra aitortu du	Ez ditu hauteman hizkuntzen erabileraren ondoriozko aldeak
Hizkuntza eta irudi inklusiboen erabilera, estereotipoak saihestuz.	Erabiltzen dituen hizkuntza eta irudiak ez dira sexistak, eta inklusiboa da, alderdi guztietan: <ul style="list-style-type: none"> - Gizon eta emakumeak barne hartzen dituen terminoak, termino neutroak, generikoak erabili ditu. Femeninoa erabili du kargu profesionaletarako. - Termino inklusiboak erabili ditu, sexu-afektuzko aniztasunarekin, eta sexu-genero sisteman binarioak ez diren aukerak ikusarazi ditu. - Erabiltzen dituen irudietan, hainbat ezaugarri fisiko, etniko eta sozioekonomiko dituzten gizon eta emakumeak daude. Ikuspegia kontuan hartu du (nork eta nola okupatzen duen espazioa irudian), eta alborapenak saihestu. 	Gizon eta emakumeak barne hartzen dituen terminoak, termino neutroak, generikoak erabili ditu. Femeninoa erabili du kargu profesionaletarako. Termino inklusiboak erabili ditu, sexu-afektuzko aniztasunarekin, eta sexu-genero sisteman binarioak ez diren aukerak ikusarazi ditu.	Gizon eta emakumeak barne hartzen dituen terminoak, termino neutroak, generikoak erabili ditu. Femeninoa erabili du kargu profesionaletarako.	Ez ditu erabili hizkuntza eta irudi ez-sexistak eta inklusiboak alderdi guztietan.
Zorroztasuna eta egiazkotasuna	Lana argia eta zehatza da, eta errealitatearen egiazko irudia ematea lortu du; horretarako, dogmak saihestu eta egiaztatutako informazio-iturrien hautaketa zaindua aurkeztu, eta bazterretatik sortzen direnei arreta berezia eskaini die.	Lanak argia eta zehatza izan nahi du, eta errealitatearen egiazko irudia transmitzea lortu du; horretarako, egiaztatutako informazio-iturri batzuk aurkeztu ditu.	Lanak ez du lortu argia izatea, eta transmititzen duen errealitatearen irudiak haren egiazkotasunari buruzko zalantzak eragin ditu, dogmak baliatuz. Informazio-iturri batzuen hautaketa aukeratu du.	Ez ditu informazio-iturriak zaindu ikerketa-proiektuan.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Ikerketaren emaitzen barne-zabalkunderako tresnak erabiltzea	Barne-zabalkunderako tresnak erabili ditu, eta, horretarako, kolektibo/pertsona parte-hartzaileen berezitasunak kontuan hartu, parte-hartzea eta erabakiak hartzea sustatu du, komunitatearen autonomia onartuz.	Barne-zabalkunderako tresnak erabili ditu, eta, horretarako, kolektibo/pertsona parte-hartzaileen berezitasunak kontuan hartu ditu.	Barne-zabalkunderako tresnak erabili ditu, baina kolektibo/pertsona parte-hartzaileen berezitasunak kontuan hartu gabe.	Ez ditu emaitzak kolektibo/pertsona parte-hartzaileen artean hedatu.
Epaimahai aurreko aurkezpena 1 Bitarteko osagarriak erabiltzea eta Laguntza-materiala laburtzeko gaitasuna	Aurkezpena horretarako prestatutako materialetan oinarrituta egin du, eta, horretarako, ulermena eta laburtzeko gaitasuna erakutsi eta azalpenak grafikoen, koardoen, webguneetarako esteken eta bideoen bidez irudikatu ditu.	Erabili dituen laguntzarako materialek huts batzuek dituzte. Denbora-tarte labur batez, laguntzarako materialak irakurri ditu, laburtzeko eta ulermenerako gaitasun handirik erakutsi gabe.	Erabili dituen laguntza-materialak ez dira oso landuak edo ez dira argiak. Laguntzarako materialak laburtu gabe irakurri ditu eta ez du erakutsi ulertu duenik.	Aurkezpenerako ez du inolako bitarteko osagarririk baliatu, eta ez du laguntzarako materialik prestatu.
Epaimahai aurreko aurkezpena 2 Ahotsaren intonazioa eta ikusizko kontaktua	Argi hitz egin du, eta entzuteko moduko bolumenarekin. Aurkezpenaren gaia gertutasunez eta eraginkortasunez transmititu du, eta entzuleen arreta mantendu du.	Denborarik gehien argi hitz egin du, eta entzuteko moduko bolumenarekin. Denbora gehien aurkezpenaren gaia gertutasunez eta eraginkortasunez transmititu du, eta entzuleen arreta mantendu du.	Denbora gehien, azalpena ahopeka egin du, eta ez du argitasunez hitz egin. Denbora gehien, ez du erakutsi gaia ongi ezagutzen duenik, eta ez du kontuan hartu entzuten dion publikoa.	Azalpena ahopeka egin du, eta ez du argitasunez hitz egin. Ez du erakutsi gaia ongi ezagutzen duenik, eta ez du kontuan hartu entzuten dion publikoa.
Epaimahai aurreko aurkezpena 3 Gaiari buruzko ondorio argi eta egokiak eta hausnarketa propioak aurkeztea	Azalpenaren amaieran ondorio argiak aurkeztu ditu, proposatutako gaiarekin koherenteak direnak eta berezko hausnarketekin.	Azalpenaren amaieran ondorio argiak aurkeztu ditu, proposatutako gaiarekin koherenteak direnak.	Proposatutako gaiarekin/helburuekin koherentzia gutxi duten ondorioak aurkeztu ditu.	Azalpenaren amaieran ez du inolako ondorioarik, hausnarketarik edo ideiarik aurkeztu.
Epaimahai aurreko aurkezpena 4 Galderak egiteko txanda	Zehaztasunez erantzun die proiektuari buruz planteatutako galderei.	Zehaztasunez erantzun die proiektuari buruz planteatutako galdera gehienei.	Anbiguotasunez erantzun die proiektuari buruz planteatutako galderei.	Ez die zuzen erantzun proiektuari buruz planteatutako galderei.

3.2.3. Etika eta gizarte-konpromisoa

“Egoera bidegabeetan neutrala bazara, zapaltzaileen alde jarri zara”

Desmond Tutu

ISF/MGIk uste du etika eta gizarte-konpromisoa hertsiki lotuta daudela eta funtsezko elementuak direla herritar kontziente, kritikoa, eraikitzaile eta errealitatea eraldatzeko gai dienenentzat.

Etika dela eta, askatasunari ematen diogun erabilerarekin eta horretarako ditugun arazoiekin lotuta (Lozano, 2015), ISF/MGIko kideok etika profesional espezifikokoak eta kode deontologikokoak gainditzen dituen ikuspegi baten alde egiten dugu, giza eskubideen errespetua, duintasuna, askatasuna, pertsonen aniztasuna eta berdintasuna eta ingurumenaren zaintza oinarri dituenaren alde, pertsonen ongizateaz gainera ikerketan tartean diren izaki bizidunena eta ekosistemena ere xede izanik.

Gizarte-konpromisoak, bestalde, honako hauek ditu oinarrian: gizarte- eta ingurumen-arazoen ulermena, bai toki-mailan bai maila globalean; Ipar-Hego arteko harremanak eta asimetriak; gizarte-desberdinkeriak eta dauden botere-dinamikak. Hori kontuan hartzea beharrezkoa da ikerketak aurre egin nahi dien erronken aurrean enpatiaz eta arduraz jokatu ahal izateko. Bestalde, beharrezkoa da estraktibismo akademikoa saihestea eta parte hartzen duten pertsonak eta kolektiboak modu horizontalean inplikaraztea.

Gure ustez, era berean, garrantzitsua da ohiko gizarte- eta ingurumen-ikuspegia gainditzea eta ingurumen-balioan bertan arreta jartzea. Nahiz eta ingurumenaren gaineko edozein inpaktuk gizartean eragina izango duela ukaezina den, garrantzitsua da naturaren beraren balioa nabarmentzea eta eskubideen subjektutzat hartzea, Trantsizio Ekosozialerako beharrezkoa den kultura-aldaketan laguntzeko.

Etikarekin eta gizarte-konpromisoarekin lotutako gai horiek guztiak berrikusi ondoren, ebaluazio-matrize bat proposatzen dugu, hala nola honako aldagai hauek kontuan hartuko dituen:

- Ikerketan parte hartzen duten kolektiboko kideak edo pertsonak eskubidedun subjektu eta solaskidetzat hartzen dira, eta bete nahi diren helburuen, erabili beharreko metodologiaren eta lortutako informazioaren erabileraren berri ematen zaie.
- Egindako ekintzei eta haiek ekar ditzaketen ondorioei buruzko gogoeta egiten da, eta bereziki kontuan hartzen da elkarlanean diharduten taldeetan duen eragina.
- Proposatutako irtenbide zientifiko-teknikoen gizartean eta ingurumenean duten eragina aztertzen da eta, horretarako, haien funtzionaltasuna eta egokitasuna balioesten dira, jasangarritasuneko eta justizia sozialeko irizpideen arabera.
- Generotik, klasetik, etniatik, arrazializaziotik eta abarretik eratorritako desberdinkeriak gainditzeko bide posibleak proposatzen dira, eta gizarte-egoera ahuleko kolektiboekiko jokabide alboratuak desagerrarazten dira.
- Zenbait jarduketa- eta harreman-testuingurutan erabiltzen diren datuei buruzko konfidentzialtasuna gordetzen da, parte-hartzaileen segurtasuna eta osasun emozionala babesteko.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Kolektibo/ pertsone parte- hartzailerak eskubide- subjektutzat	Ikerketan parte hartzen duten kolektiboko kide/pertsonak eskubide-subjektu direla ulertu du, eta beren gain hartzen dituzten arrisku eta onuren berri eman die. Solaskidetzat jo dira, eta erabiliko diren metodoen, helburuaren eta asmoaren berri eman zaie, bai eta eskuratutako informazioaren erabilera posiblearen berri ere. Gainera, ikerketan parte hartzen diren pertsona, animalia eta ekosistemen eskubideak eta ongizatea bermatu ditu.	Ikerketan parte hartzen duten kolektiboko kide/pertsonak eskubide-subjektu direla ulertu du, eta beren gain hartzen dituzten arrisku eta onuren berri eman die. Solaskidetzat jo dira, eta erabiliko diren metodoen, helburuaren eta asmoaren berri eman zaie, bai eta eskuratutako informazioaren erabilera posiblearen berri ere.	Ikerketan parte hartzen duten kolektiboko kide/pertsonak eskubide-subjektu eta solaskide direla ulertu du, eta erabiliko diren metodoen, helburuaren eta asmoaren berri eman zaie, bai eta eskuratutako informazioaren erabilera posiblearen berri ere.	Ez du ulertu ikerketan parte hartzen duten kolektiboko kide/pertsonak eskubide-subjektu direnik.
Inpaktuak ikerketan- prozesuan	Hartutako ekintzei eta ekar ditzakeen ondorioei buruzko gogoeta egin du, bai eta helburuak lortzeko erabaki duen moduari buruzkoa ere. Bereziki, kontuan hartu du lankidetzan diharduten taldeetan duen eragina, bai eta maila indibidualean eraginda-koak ere.	Emaitzak lortzeko moduak ekar ditzakeen ondorioei eta hartutako ekintzei buruzko gogoeta egin du.	Emaitzak lortzeko moduak ekar ditzakeen ondorioei buruzko gogoeta egin du.	Ez ditu kontuan hartu ikerketan proiektuak ekar ditzakeen ondorioak.
Aurkeztutako proposamenen gizarte- eta ingurumen- inpaktuak	Proposatutako irtenbide zientifiko-teknikoek gizar-tean eta ingurumenean duten eragina aztertu du eta, horretarako, haien funtzionaltasuna eta egokitasuna balioetsi ditu, jasangarritasuneko eta justizia sozialeko irizpideen arabera. Zehazki, elkarlanean diharduten taldeetan aipatutako inpaktuak hartu ditu kontuan.	Proiektuak gizar-tean eta ingurumenean duen eragina eta proposatutako irtenbide zientifiko-teknikoen eragina aztertu ditu, eta, horretarako, haien funtzionaltasuna eta egokitasuna balioetsi ditu, jasangarritasuneko eta justizia sozialeko irizpideen arabera.	Proiektuak gizar-tean eta ingurumenean duen eragina eta proposatutako irtenbide zientifiko-teknikoen eragina aztertu ditu.	Ez ditu kontuan hartu ikerketan proiektuak planteatutako proposamenek ekar ditzaketen gizarte- eta ingurumen-ondorioak.
Gizarte-des- berdinkeriak gaitziteko ekintza enpatikoa eta ardurtsua	Gizarte-egoera ahuleko kolektiboen inguruko desberdinkeriak (generoa, klasea, etnia, arrazializazioa...), eta portaera alboratzaileak gaitziteko bide posibleak proposatu ditu.	Desberdinkeriak (generoa, klasea, etnia, arrazializazioa...) gaitziteko bideak proposatu ditu.	Gizarte-desberdinkeria- jokabideak identifikatu ditu diseinatutako jarduerak eta/edo proiektuetan, baina ez du irtenbiderik proposatu.	Ez du desberdinkeria-rik identifikatu.
Konfidentzial- tasuna	Zenbait jarduketan eta harreman-testuingurutan erabiltzen dituen datuei buruzko konfidentzialtasuna gorde du, parte-hartzaileen segurtasuna eta osasun emozionala babesteko.	Zenbait jarduketan eta harreman-testuingurutan erabiltzen dituen datuei buruzko konfidentzialtasuna gorde du, baina ez du parte-hartzaileen segurtasuna eta osasun emozionala babesteko beharrezko inguruko hausnarketarik egin.	Datuen konfidentzialtasuna gordetzeko eta parte-hartzaileen segurtasuna eta osasun emozionala babesteko beharrezko inguruko hausnartu du.	Ez du datuen konfidentzialtasunik gorde, eta ez ditu babestu parte-hartzaileen segurtasun eta osasun emozionala.

3.2.4. Pentsamendu kritikoa

«Zientzia posizionamendu kritikotik egiteko, garrantzitsua da ikerketa helburutik sekula ez bereiztea, eta ikerketaren helburua emantzipazioa da»

Jule Goikoetxea

ISF/MGIk bazterrak barne hartzen dituen eta/edo bazterretatik eraikitzen den pentsamendu kritikoa eraikitzearen alde egiten du. Ezinbesteko elementua da eraldaketa ekosozialaren aldeko apustua egiten duten ikerketak sustatzean. Ez dugu “pentsamendu kritikoa” definiziorik eskaini nahi, ezta kontzeptu horren barruan eta kanpoan zein praktika kokatuko lirakeen zehaztu ere. Ebaluatzen saiatzen ari garen aldagaien konplexutasunak ez liguke horren posizio dikotomikoetan ezartzeko aukerarik emango. Hala eta guztiz ere, gure aburuz, pentsamendu kritikoa eraikuntzak izan ditzakeen mugak marrazten lagunduko duten analisi-elementu batzuk eskaini daitezke.

Zertzelada horien artean, ISF/MGIk uste du pentsamendu kritikoa ahalegin kontzientea egiten duela ikertzen ari den egoeraren sustraia jorratzeko, eta ikuspegi hegemonikoek ikusten ez dituzten elementuak mahai gainean jartzen saiatzen dela. Aztertutako egoera zehatz-mehatz azaldu nahi izateaz gainera, eraldatu ere egin nahi du, eta, horretarako, «erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko aukera emango duen jarrera ireki, gogoetatsu eta eraikitzailea behar da» (UPV/EHU, 2019:31). Jakintzaren eraikuntzaren bazterretatik sortzen da eta/edo horiek interesatzen zaizkio, eta dugun sistemari datxezkion araudiak hautsi nahi dituzten beste ikuspegi batzuk barne hartzen ditu.

Azkenean, neutraltasunaren kontzeptua bera zalantzan jartzen duen ezagutza kokatua da. Haren sorburu den tokiaz jabetuta, ezagutzaren subjektibotasuna aitortzen du, baina horrek ez du esan nahi diskurtso zorrotza eraikitzeari uko egiten zaionik. Donna Haraway-k defendatutako jarrera epistemologikoan eta ezagutza kokatua ikusaraztearen alde egiten duen apustuan, kontuan hartzen da zer ikuspegitik mintzatzen garen eta lankidetzan diharduten taldeekiko distantziak eta hurbiltasunak agerian uzten diren. Ezagutzak objektiboa izan behar duela dioen ideia hegemonikoarekin hausteko, ezagutza eraikitze modua bera planteatzen duten beste metodologia batzuk ikertu behar dira. Horregatik guztiagatik, gure aburuz, pentsamendu kritikoa berekin dakar zalantzan jartzeko, aztertzeko, interpretatzeko, laburtzeko, balioesteko eta argudio arrazoituak emateko gaitasuna (UPV/EHU, 2019:31).

Helburu horiek izanik, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateak ezagutza eraikitze prozesuetan duen zeregina berrikustea, mundu bidezkoagoa eta zuzenagoa eraikitzean egin behar duen ekarpena gogoan izateko beti (Del Río eta Celorio, 2019:9). Horretarako, eta pentsamendu kritikoa eraikuntzan dauden bazter horiek guztiak berrikusi ondoren, honako aldagai hauek kontuan hartuko dituen ebaluazio-matrizea proposatzen dugu:

- Ikerketa egitera eramanean duten motibazio etiko-politikoak zehaztea, eta, horretarako, hari dagokion eredu soziopolitiko eta ikerketa horren aurrean nola kokatzen den azpimarratzea. Arreta berezia jartzea adierazten diren zapalkuntzen/privilegioen ardatzei.

- Aztertutako egoerari buruz dagoen ezagutza zabaltzeaz gain, ikerketaren helburuetan haren zapalkuntza- eta bidegabekeria-elementuak eraldatzeko erronkak planteatzea, eta, horretarako, fenomenoen arteko interdependen-
tzia- eta ekomendekotasun-harremanak kontuan hartzea.
- Ezagutza eraikitzeke modua bera zalantzan jartzea, planteatutako helburue-
kin koherentea izatetik haratago doan metodologia baten bidez. Aldi berean,
askotariko ahotsak biltzea eta ikerketa-prozesuan modu horizontalean parte
hartzea.
- Ikuspegi lokal-global batetik (eta alderantziz) aztertutako egoera eragiten du-
ten kausak aztertzea.
- Testuinguruaren eta ikerketetan aurkeztutako proposamenen azterketan,
hainbat korrontetako egileekin elkarrizketak izatea, eta arreta berezia eskain-
tzea zaie bazterretatik sortzen direnei. Kontraste-ariketa hori diziplinarteko
ikuspegi batetik egitea, eta aztertutako sistemen konplexutasuna aintzat har-
tzen duten ikuspegietatik azterketa egitea.
- Arreta berezia eskaintzea ikerketaren beraren mugak ikusarazteari; izan ere,
horrek lanaren zorrozatasuna sendotzen duen metahausnarketa kritikoa dakar.
Era berean, ikertzen jarraitzeko etorkizuneko ildo posibleak aipatzea, eta, hala,
lehentasunei eta beharrezko ikuspegiei buruzko gomendioak ematea, dizipli-
narteko ikuspegi batetik.
- Aurkeztutako ondorioak gizarte-aldaketarako garrantzitsuak izatea, eta, horre-
tarako, sortutako aurkikuntzak aztertutako testuinguruan kokatu eta adieraz-
ten diren zapalkuntzen/pribilegioen ardatzei arreta berezia eskaintzea.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Ikerketaren helburuaren eta justifikazioaren analisi kritikoa	Ikerketaren helburuaren ebaluazio morala egin du, eta zintzoa da ikerketa egiteko arrazoiekin, eta eredu soziopolitikoak azpimarratu du; horretarako, adierazten diren zapalkuntzen/pribilegioen ardatzei arreta jarri die.	Ikerketaren helburuaren ebaluazio morala egin du, eta zintzoa da ikerketa egiteko arrazoiekin, eta eredu soziopolitikoak azpimarratu du.	Ikerketaren helburuaren ebaluazio morala egin du, eredu soziopolitikoak aipatu gabe, ez eta hura sustatzen duten interes-taldeak ere.	Ez du ikerketaren helburuaren ebaluaziorik egin.
Helburuak definitzea, gizartea eraldatzeko irizpideen arabera	Helburu orokorren eta/edo espezifikoen barruan, gizarte-egoera bidegabeak eraldatzeko erronkak planteatu ditu, fenomenoaren arteko interdependentzia eta ekodependentzia, pentsamendu androzentrikoaren beharrezko dekonstrukzioa eta ikuspegi interseksionala kontuan hartzen dituen ikuspegitik.	Helburu orokorren eta/edo espezifikoen barruan, gizarte-egoera bidegabeak eraldatzeko erronkak planteatu ditu, fenomenoaren arteko interdependentzia eta ekodependentzia eta pentsamendu androzentrikoaren beharrezko dekonstrukzioa kontuan hartzen dituen ikuspegitik.	Helburu orokorren eta/edo espezifikoen barruan, gizarte-egoera bidegabeak eraldatzeko erronkak planteatu ditu, fenomenoaren arteko interdependentzia eta ekodependentzia kontuan hartzen dituen ikuspegitik.	Helburu orokorrek eta espezifikoez ez dute gizarte-egoera bidegabeak eraldatzeko erronkarik planteatu.
Helburuekin koherentea den metodologia, ezagutza eraikitze modua berazalantzan jartzeko duena	Proposatutako metodologia koherentea da planteatutako helburuekin; diseinu metodologiko hori gizarte-eraldaketaren zerbitzura egiteko arrazoiak argudiatu ditu. Aukeraturiko teknikek ahotsen aniztasuna eta parte-hartze horizontala biltzeko bide eman dute.	Proposatutako metodologia koherentea da planteatutako helburuekin; diseinu metodologiko hori gizarte-eraldaketaren zerbitzura egiteko arrazoiak argudiatu ditu.	Proposatutako metodologia koherentea da planteatutako helburuekin.	Proposatutako metodologia ez da koherentea planteatutako helburuekin.
Aztertutako egoera eragiten duten kausen analisi kritikoa	Aztertutako egoera eragiten duten kausak ikertu ditu, diziplinarteko ikuspegi batetik, eta testuinguruaren azterketa lokala/globala egin du.	Aztertutako egoera eragiten duten kausak ikertu ditu, diziplinarteko ikuspegi batetik, testuinguruaren azterketa lokala/globala egin gabe.	Aztertutako egoera eragiten duten kausak ikertu ditu, diziplinarteko ikuspegirik aplikatu gabe eta testuinguruaren azterketa lokala/globala egin gabe.	Ez ditu aztertutako egoera eragiten duten kausak ikertu.
Testuinguruaren kontrastea	Diziplinarteko ikuspegitik, aztertutako egoera eta hainbat korrontetako egileen ekarpenak kontrastatu ditu, eta arreta berezia eskaini die bazterretatik sortzen direnei.	Diziplinarteko ikuspegitik, aztertutako egoera eta hainbat korrontetako egileen ekarpenak kontrastatu ditu.	Aztertutako egoera eta egileen ekarpenak kontrastatu ditu, baina korronteen aniztasuna kontuan izan gabe.	Ez ditu aztertutako egoera eta hainbat korrontetako egileen ekarpenak kontrastatu.

	BIKAINA	ALTUA	TARTEKOA	BAXUA
Sortutako proposamenen kontrastea	Diziplinarteko ikuspegitik, emandako alternatibak eta hainbat korrontetako egileen ekarpenak kontrastatu ditu, eta arreta berezia eskaini die bazterretatik sortzen direnei.	Emandako alternatibak eta hainbat korrontetako egileen ekarpenak kontrastatu ditu, diziplinarteko ikuspeirik gabe.	Emandako alternatibak eta egileen ekarpenak kontrastatu ditu, baina korronteen aniztasuna kontuan izan gabe.	Ez ditu aztertutako egoera eta hainbat korrontetako egileen ekarpenak kontrastatu.
Ikerketa-lerro berriak	Ikerketaren beraren mugak adierazi ditu eta ikertzen jarraitzeko etorkizuneko ildo posibleak aipatu ditu eta, hala, lehentasunei eta beharrezko ikuspegi buruzko gomendioak eman ditu, diziplinarteko ikuspegi batetik.	Ikertzen jarraitzeko etorkizuneko ildo posibleak aipatu ditu eta, hala, lehentasunei eta beharrezko ikuspegi buruzko gomendioak eman ditu, diziplinarteko ikuspegi batetik.	Ikertzen jarraitzeko etorkizuneko ildo posibleak aipatu ditu.	Ez ditu ikerketaren beraren mugak adierazi eta ez ditu ikertu jarraitzeko etorkizuneko ildo posibleak aipatu.
Ondorio zorrotzak, testuinguruan kokatuak eta esanguratsuak gizarte-aldaketarako	Aldaketa ekosozialerako garrantzitsuak diren ondorioak aurkeztu ditu, eta emaitzak ikerketaren eremuetara eraman ditu; hala, haren helburuekin lotu ditu, eta adierazten diren zapalkuntzen/pribilegioen ardatzei arreta berezia eskaini die.	Ez ditu ondorioak orokortu, eta emaitzak ikerketaren eremuetara eraman ditu; hala, haren helburuekin lotu ditu.	Ikerketaren emaitzei buruzko ondorioak orokortu ditu, beharrezko arrazoiketarik gabe	Azaldutako ondorioak ez daude ikerketan lortutako emaitzetan oinarrituta.



4. Amaierako zenbait hausnarketa

Dokumentu honetan, zenbait errubrika azaldu dira, prestakuntzarako eta gaitasunak ebaluatzeko tresnatzat baliagarriak direla sinetsita.

Jakin badakigu errubrika bat alderdi subjektiboz betetako lan baten eta prozesu baten ebaluazioa objektibo bilakatzen saiatzen den tresna bat baino ez dela. Alabaina, gure iritziz, baliagarriak izan daitezke ikasleek eta irakasleek eraldatzeko xedea duen GrAL/MAL batetik espero diren ikaskuntza-emitzei buruz hausnar dezaten.

Tresna horien ahalmen osoa garatzeko, bi baldintza bete behar dira: adostuak izatea eta ikasleek eurek proiektuaren hasieratik eskuragarri izatea.

Hori horrela, espero dugu irakasleek tutoretza-lanaren hasieran aurretiko adostasun-lan hori gauzatzea, eta espero dugu metodologiak eta helburuak adostean lagungarri izatea.

Bestalde, GrAL/MAL prozesua ebaluatzeari dagokionean, tutoreak epaimahaiko gainerako kideek jakin ezin izango dituzten datuak dauzka, haiek baino gertuagotik jarraitu baitio ikaslearen lanari. Garrantzitsua iruditzen zaigu tutore horrek hausnartzea prozesu horren zer alderdi jakinarazi beharko litzaizkiokeen epaimahaiko gainerako kideei, alderdi horiek kontuan har ditzaten.

Hala, badira GrAL/MALaren prestakuntza-prozesuan nahi diren ikaskuntza-emitzatzat sartu beharko lirartekeen zenbait alderdi, hala nola prozesu osoko inplikazioa, proaktibitatea, asertibitatea, lanaren antolaketa, arazoak konpontzeko gaitasuna eta abar.

Amaitzeko, sarreran aipatu dugun bezala, espero dugu errubrika hau dinamikoa izatea, eta etorkizunean ebaluatzea, berrikustea eta pixkanaka garatzea. Handiustea litzateke GrAL/MAL batean izan daitezkeen tipologia eta kasuistika guztietarako tresna bakartzat eta baliozkotzat hartzea. Gure ustez, askoz egokiagoa da eraldaketa kritikorako prozesu batek kontuan hartu beharko lituzkeen alderdi guztiak txertatzeko gidatzat hartzea, kontuan hartuta alderdi horiek, askotan, ahaztu egiten direla edo sozialki eta kulturalki unibertsitate-logikari lotuta dauden beste alderdi batzuen mesedetan baztertu ohi direla (zorroztasuna, metodologia, forma, irismena, etab.).

Horregatik, eta errubrikan ikus daitekeenez, aurreikusitako ikaskuntza-emaitei pisurik edo kalifikaziorik ez jartzea erabaki dugu. Lerro hauetan zehar behin baino gehiagotan errepikatu den bezala, uste dugu errubrika batek kalifikazioaren kontzeptua gainditzen duela eta prestakuntza-prozesuari lagundu behar dion tresna bat dela. Gainera, eraldaketa ekosozialerako GrAL/MAL prozesu konplexua izanik, alderdi garrantzitsurik ez ahanzten lagundu behar duela. Kalifikazio-tresnatzat ere erabili nahi izanez gero, prozesuan parte hartzen duen taldearen ardura izango da pisu horiek lanaren eta haren tipologiaren arabera txertatzea.

Lan hau egin dugunok nabarmendu nahi dugu gure erakundeak izaera kolektiboa duela, eta Mugarik Gabeko Ingeniaritzan parte hartzen duten pertsonek urteetan zehar parte hartu duten espazioetan eginiko ekarpenak aintzatetsi nahi ditugu, gure ezagutza aberastu baitute. Espero dugu sortutako jakinduria guztia bildu izana eta geure harri-koskorra ekarri izana.

Bibliografía

BENGOETXEA, Mercedes (2014). Las buenas alumnas ante los TFG: atrapadas entre la cultura comunicativa femenina y el androcentrismo. In Unidade de Igualdade Universidade Vigo, *Libro de Actas de la III Xornada de Innovación en Xénero, Docencia e Investigación* (9-35. or.). Vigo: Universidad de Vigo.

BOILLOS, Mari Mar eta BEREZIARTUA Garbiñe (2021eko urriaren 6a). *El sentido de publicar en una lengua minorizada: el euskera en las revistas académicas*. Hemendik berreskuratua:

<https://theconversation.com/amp/el-sentido-de-publicar-en-una-lengua-minorizada-el-euskera-en-las-revistas-academicas-168954>

CANNON-BOWERS, J., TANNENBAUM, S., SALAS, E. eta VOLPE, C. (1995). Defining team competencies and establishing team training requirements. In Guzzo, R., Salas, E. (Eds.), *Team effectiveness and decision making in organizations* (333-380. or.). San Francisco, CA: Jossey-Bass.

CHU, Johan eta EVANS, James (2021). Slowed canonical progress in large fields of science. *Proceedings of the National Academy of Sciences* 118 (41).

<https://doi.org/10.1073/pnas.2021636118>

DEL RÍO, Amaia eta CELORIO, Gema (2019). *Indagación crítica, diálogo y compromiso social en los trabajos de investigación académicos. Aportes desde una experiencia de construcción colectiva*. Bilbo: Hegoa Institutua.

HERNÁNDEZ-LEO, Davinia, MORENO, Verónica, CAMPOS, Irene, CLARISÓ, Robert, MARTÍNEZ-MONÉS, Alejandra, MARCO-GALINDO, Maria Jesús eta MELERO, Javier (2013). Implementación de buenas prácticas en los trabajos de fin de grado. *Revista de Docencia Universitaria* (11), Número especial dedicado a *Engineering Education*, 269- 278.

LOZANO, José Félix (2015eko uztailaren 30a). Ética en la investigación [bideoa]. Hemendik berreskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=l6-s_nTCrsk

PÉREZ-PONS, Eva, RUIZ, Pepe, SAINZ DE MURIETA, Joseba, VÁZQUEZ, Leire, VEGA, Mónica eta VILLENA, Unai (2019). *Camino hacia la transformación social: Trabajos Fin de Grado y Trabajos Fin de Máster como herramienta de cambio*. Bilbo: ISF-MGI.

REYZÁBAL, María Victoria (2016). Las competencias comunicativas y lingüísticas, clave para la calidad educativa. REICE. *Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación*, 10 (4).

VILLA, Aurelio eta POBLETE Manuel (Zuz.) (2007). *Aprendizaje basado en competencias. Una propuesta para la evaluación de las competencias genéricas*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

URANGA, Maria José (Koord.) (2019). *Catálogo de competencias transversales de la UPV/EHU*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (UPV/EHU).